

Programazio didaktikoak egiteko GIDA AGIRIA

2016-2017ko ikasturtea

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Programazio didaktikoak egiteko gida- agiria

Lehen Hezkuntza eta
Derrigorrezko Bigarren
Hezkuntza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Vitoria-Gasteiz, 2016

AURKIBIDEA

	Orria
1. Sarrera	7
2. Programazio didaktikoa eta osatzen duten elementuak	8
3. Programazio didaktikoaren elementu berriak	8
3.1. Oinarrizko zeharkako kompetentziak eta oinarrizko diziplina-kompetentziak	8
3.2. Integrazio-egoerak	12
4. Kompetentzien araberako hezkuntzaren ikuspegiarekin bat dator metodologia	14
5. Diziplina- eta zeharkako kompetentzien ebaluazioa	17
6. Irakasgai edo arlo mailako urteko programazio didaktikoa 2016-2017ko ikasturtean	21
7. Eranskinak	23
<i>I. eranskina: irakasgai edo arlo mailako urteko programazio didaktikoa egiteko txantiloia berria</i>	25
<i>II.eranskina: unitate didaktikoa programatzeko txantiloia</i>	28
<i>III.eranskina: arazo-egoera batetik abiatuta, unitate didaktikoa programatzeko adibideak</i>	29

1.- Sarrera

2016-2017ko ikasturtean Lehen Hezkuntzako ikaskuntza-arlo desberdinen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako arloen programazio didaktikoak egiteko laguntza gisa eskaintzen da gida-agiri hau eta baliagarri izaten jarraitzen duten “2013ko programazio didaktikoak egiteko orientabideak “ osatzen ditu.

Gida honek Heziberri 2020 hezkuntza- eta pedagogia-ereduaren markoa du oinarri eta abenduaren 22ko 236/2015 dekretua, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak finkatu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena, hartzen du kontuan.

Jakina denez, arau-aldaketetan planteatzen dena irakasleek gelen praktikan aplikatu ezean, arau horiek ez dute inolako ondoriorik. Premisa horretatik abiatuta, irakaskuntza-esperientziaren eta hezkuntza-ikerketaren arabera ikasleen ikasteko prozesuak errazteko funtsezkoak izan diren alderdi horiek irakasleen esku-hartzean sartu behar dira ikastetxe guztietan. Gela guztietan ikaskuntza-prozesuak aurrera eramatea, ikasle bakoitza bizitzaren arlo guztietan (pertsonala, akademikoa, harremanak, profesionala, ...) ahalik eta gaituen egon dadin, nahi du Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak eta, horretarako, aldaketak gertatzeko benetako eragileak irakasleak direla ulertu behar da ezinbestean. Horiek horrela, funtsezkoa da ikaskuntzak errazteko dagoeneko proposamen didaktikoak garatzen ari direnak sustatu eta baloratzea eta, halaber, behar diren laguntzekin bultzatu behar dira aldaketa metodologikoak, behar diren kasu guztietan.

Gaurko markoan garrantzi berezia hartzen duten programazio didaktikoaren elementuak, irakasleei irakaskuntza-praktika hobetzen jarraitzen laguntzeko, azpimarratzea du agiri honek helburu. Hala ere, ebaluazioa bezalako alderdi batzuk ez direla oraindik araudi gisa garatu azaldu behar da eta, beraz, ezin izan dira agiri honetan agertu.

2.- Programazio didaktikoa etaosatzen duten elementuak

Abenduaren 22ko 236/2015 dekretuak 25. artikuluan xedatzen duenez, programazio didaktikoa arlo eta irakasgai bakoitza planifikatu, aurrera eramane eta ebaluatzeko tresna espezifikoa da, eta hau zehazten du: programazio didaktiko horretan, eta ikastetxearen curriculum-proiektuaren arabera, curriculumaren elementu desberdinak konkretatu eta ikasleen ezaugarri espezifikoetara egokituko dira.

Ondorengo elementuak, gutxienez, agertu beharko ditu:

- Ikasturtean zehar aurrera eramane beharreko zeharkako eta diziplina-konpetentziak eta integrazio-egoerak.
- Helburuak.
- Edukiak.
- Ebaluazio-irizpideak eta helburuak lortu diren ikusteko adierazleak.
- Kalifikazioa.
- Erabaki metodologiko eta didaktikoak.
- Curriculuma garatzeko material eta baliabideak.

3.- Programazio didaktikoaren elementu berriak.

Ondorengo lerroetan aurkezten dira 236/2015 dekretuak agertzen dituen programazioaren elementu berriak.

3.1.- Oinarrizko zeharkako konpetentziak eta oinarrizko diziplina-konpetentziak

Oinarrizko zeharkako konpetentziak horrela definitzen dira: eremu eta egoera pertsonal, sozial, akademiko eta laboral guztietan arazoak eraginkortasunez konpontzeko behar direnak dira. Oinarrizko diziplina-konpetentziak garatzen dituzten arloen edukiak ikasteko prozesuan integratzea da ikasteko eta ebaluatzeko era bakarra.

Arlo edo irakasgai bakoitzaren programazio didaktikoan bost zeharkako konpetentziak behar den atalean jasota agertuko dira. Zerrenda honek arau-aginduari ematen dio erantzuna baina haren garapenak programazioaren elementu bakoitzean (helburuetan, edukietan ...) eta, batez ere, erabaki metodologikoetan eta ebaluazioan gehitzea dakar.

Oinarrizko diziplina-kompetentziak bizitzaren eremu eta egoerei lotutako arazoak (pertsonalak, sozialak, akademikoak eta lanekoak) eraginkortasunez konpontzeko behar direnak dira eta diziplina-arlo edo irakasgaiaren bati lotutako baliabide espezifikoak mugitzea eskatzen dute. Halaber, arrakastaz lortzeko, oinarrizko zeharkako kompetentzien bitartekaritza behar dute.

Arlo edo irakasgaiaren programazio didaktikoan lotura zuzena duen diziplina-kompetentzia agertuko da, baita aurrera eramateko arlo edo irakasgaia lagungarri den beste diziplina-kompetentzia batzuk ere.

Oinarrizko kompetentziak eraginkortasunez eskuratzeko, ikastetxeek ikasteko proposamen integratuak diseinatu behar dituzte, ikasleek aldi berean kompetentzia bat baino gehiago garatzeko aukera ematen dutenak.

Ikasleek oinarrizko kompetentziak ikastea eta ikaskuntza horren ebaluazioa irakasleen esku-hartzerako erronka handia da. Erronka horrek planteamendu metodologikoak sakonki berrikustea eskatzen du eta berrikuspen horrek programazio didaktikoan agertu behar du.

Kontrol-galderak

- Programazio didaktikoak bost zeharkako kompetentziak hartzen al ditu kontuan?
- Arlo edo irakasgaiari dagokiona ez ezik, beste diziplina-kompetentzia batzuk ere integratzen al ditu programazio didaktikoak?
- Helburuek oinarrizko kompetentziak hartzen al dituzte kontuan?
- Hizkuntzakoak ez diren arlo /irakasgai guztietan hizkuntz komunikazioaren helbururik zehazten al da?
- Planteatu al dira kompetentzia batzuk integratzeko aukera ematen duten arazo-egoerak?
- Arloa edo irakasgaia ebaluatzeko irizpideek oinarrizko kompetentzien ebaluazioa ahalbidetzen al dute?
- Programazio honen arloa edo irakasgaia ezagutza-arloetan beste arlo edo irakasgai batzuekin taldekatu al da? Zeintzuekin?

Ondoren zeharkako eta diziplina-kompetentziak arlo edo irakasgai baten urteko programazioan nola sar daitezkeen ikusteko adibide bat erakusten da. Adibidean adibide gisa jartzen diren zeharkako kompetentziak eta

helburuekin eta ebaluatzeko irizpideekin duten harremana letra lodian nabarmendu dira. Urteko programazio osoak bost zeharkako kompetentziatarako eta lotutako diziplina-kompetentziatarako helburuak eta ebaluazio-irizpideak azaldu beharko lituzke.

I. ERANSKINA
ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO
DIDAKTIKOA EGITEKO TXANTILLOIA
ANEXO I
PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN
DIDÁCTICA ANUAL DE ÁREA O MATERIA

Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa
Programación didáctica anual/de curso

ikastetxea: <i>centro:</i>		kodea: <i>código:</i>	
etapa: <i>etapa:</i>	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	3-kurtoa
arloa/irakasgaia: <i>área / materia:</i>	Gaztelania eta literatura		
osatutako arloak/irakasgaiak <i>áreas/materias integradas</i>			
diziplina barruko oinarrizko konpetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares</i> <i>básicas asociadas</i>	Hizkuntza eta literatura komunikazioko konpetentzia Arte- eta kultura-konpetentzia		
irakasleak: <i>profesorado:</i>		ikasturtea: <i>curso:</i>	2016/2017

Zeharkako konpetentziak / Competencias transversales:

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia
3. Elkarbizitzarako konpetentzia
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia
5. Izaten ikasteko konpetentzia

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
<ol style="list-style-type: none"> 1. Informazio-teknologiak izpiritu kritikoarekin eta autonomiarekin erabiltzea, iturri desberdinetatik informazioa lortzeko eta informazio hori fidagarri den ebaluatzeko. 2. 	<p>14. Informazio-teknologiak autonomiarekin erabiltzea, eskola-jardueraren premiei erantzuna emateko informazioa bilatu, selekzionatu, kudeatu eta komunikatzeko orduan.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Era aurreratuan bilatzeko tresnak eta gai-bilatzaile tematikoren bat erabiliz informazioa bilatu eta lokalizatzen du. • Euskarri lokalak eta on-line erabiliz selekzionatutako informazioa gorde eta era eraginkorrean berreskuratzen du. • Informazioa autonomiarekin, egoki eta eraginkortasunez, etiketatzen du. • Komunikatzeko eta lankidetzan aritzeko helburu desberdinetara egokitutako zenbait tresna eta aplikazio erabiltzen ditu. • Valora, de manera autónoma y atendiendo a pautas

3.2.- Integrazio-egoera (arazo-egoera)

Gaurko curriculumak, konpetentzien araberako ikuspegian oinarritzen denak, arazo-egoerei behar bezala erantzuna emango dieten pertsonak prestatzeko konpromisoa defenditzen du; hots, ikasleak egoera konplexu eta esanguratsuen aurrean jartzeko beharra planteatzen du, behar den /diren konpetentzia edo konpetentziak erabiliz konpon ditzaten.

Arazo-egoerak¹, beraz, konpetentziak aurrera eramateko beharrezkoak dira, jakintzak integratzeko eta ikasleek jakintza horiek geroago, egoera berrietan, erabil ditzaten baitira lagungarri.

Dekretuan “arazo-egoera “ eta “integrazio-egoera “ terminoak era berean erabiltzen dira. Agiri honetan “arazo-egoera “ terminoa erabiltzea aukeratu da, “integrazio-egoerarena “ sartzen duen kontzeptu zabalago bat baita.

Arazo-egoera batek ezaugarri hauek ditu: ikasle batek, banaka edo taldeka, testuinguruen araberako informazioen multzo bat artikulatu behar du, erantzuna aldeztatik aurretik begi-bistakoa ez den eginkizun zehatz bat konpontzeko asmoz.

Jarduera konplexua da, erronka bat dakar eta erronka hori konpontzeak ikaskuntza berriak aurrera eramateko aukera emango du. Ikasleek arazo-egoera honi erantzuna ematea da kontua, testuingurutik ateratako diziplina-edukiak saihestuz.

Arazo-egoera irakatsi eta ikasteko prozesuaren abiapuntua eta konpetentzien araberako ebaluazioaren oinarria da.

Ikasturtean zehar aurrera eramango diren arazo-egoerak labur azalduko dira arlo edo irakasgai bakoitzaren programazio didaktikoaren “edukiak sekuentziaztea “ atalean.

Kontrol-galderak:

- Arazo-egoera bat, gutxienez, agertzen al da urteko programazioan?
- Ikasleentzat esanguratsua izan daitekeen arazo bat planteatzen al du?
- Testuinguru batean al dago?
- Lortu nahi den emaitza edo “produktua “ adierazten al du?
- Arazo-egoera ikasle guztiek eskura izateko modukoa al da? Helburuak lortzeko prozesuan mailaz maila joateko aukera ematen al du?

Ondoren adibide bat erakusten da, arazo-egoerak arlo edo irakasgai baten urteko programazioan nola sar daitezkeen ikusteko:

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta,...] **SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS** [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...]

1. unitate didaktikoa: ...

Edukiak:

-

2. unitate didaktikoa: ...

Edukiak:

-

3. unitate didaktikoa: kontaeren album bat

Arazo-egoera:

Ziur badagoela era berezian gogoan duzuen ipuin, kondaira, nobela ... bat. Zergatik gustatu zitzaizuen horrenbeste? Seguru ez datozela bat pertsona batzuen eta beste batzuen aukerak. Agian ez dute testu hau ezagutzen, ez dute irakurri. Pena litzateke esperientzia hau gainontzekoekin ez partekatzea. Hurrengo klaserako “zure bizitzaren kontaera “ hori zein izan den pentsatu beharko duzu eta aukera hori egin izana azaltzeko hiru lerro idatzita ekarri beharko dituzu. Gehien gustatu zaizkizuen biltzea polita litzateke, zuek egin duzuen bezala beste pertsona batzuek ere izan dezaten irakurtzeko eta haiekin gozatzeko aukera. Hau da antologiak egiten dutena: egilearen irizpidearen arabera aukeratutako testuen selekzio bat biltzea. Unitate didaktiko honetan kontaeren antologia bat egingo duzue.

Edukiak:

- Informazioa identifikatu, eskuratu, gorde eta berreskuratzea.
- Informazio-iturriak eta informazioa bera egokiak diren ebaluatzea.
- Literatur testu narratiboen ezaugarriak.
- Generoaren konbentzioen arabera kontaera laburrak sortzea.
- ...

4.- Konpetentzien araberako hezkuntzari buruzko ikuspegiarekin koherentea den metodologia.

Konpetentzien araberako ikuspegia gelan ezartzeak aldaketa metodologikoa dakar eta aldaketa horrek, batez ere, irakasle eta ikasleen rolari eragiten dio. Ikasleak rol aktiboa hartzen du ikasteko prozesuan eta irakaslea bitartekari, gida edo laguntzaile bihurtzen da. Edukia transmititu eta memorizatzen konpetentziak garatzera pasatzeak aldaketa metodologiko bat eskatzen du, puntu hauetan oinarrituta:

- Eginkizunak erregularri lan egitea
- jakintzak erabili beharreko baliabideetat jotzea
- arazo-egoerak oinarri dituen ikaskuntza bat diseinatzea
- eta ebaluatzeko era berriak inplementatzea

Aldaketa metodologiko honen azpian dauden printzipio pedagogikoak², funtsean, hauek dira:

- Eskolak du oinarrizko konpetentziak garatzearen ardura. Horretarako, ikaskuntzak esanguratsua eta nabarmena izan behar du, ez informazio eta ezagutzen transmisio hutsa.
- Ikaskuntza esanguratsua eta nabarmena izan dadin, ikasle bakoitzak ikaskuntzaren subjektu aktiboa izan behar du. Ezagutza bilatu, ikasi, esperimentatu, hausnartu, aplikatu eta komunikatzeko prozesuak eraman behar ditu aurrera, haren pentsamenduaren eskemak berreraikitze asmoz.
- Oinarrizko konpetentziak garatzeko, fokua egiazko egoerak dituzten jarduerak, ezagutza eguneroko arazo inportanteetara lotzen dutenak, proposatu behar dira.
- Jarduera konpetentea arazo-egoerak, haien konplexutasuna dela eta baliabideak era integratuan mobilizatzea exijitzen dutenak, konpontzean datza. Adierazpen-, prozedurazko eta jarrerazko edukiak ezinbesteko baliabideak dira arazo-egoerak konpontzeko.
- Eginkizunak, gizarte-errealitatearekin zerikusia badute, izango dira egiazkoak eta horrek eskolaren antolaketa malgua eta sortzailea eska dezake. Erronka didaktikoa kulturaren bizipena esanguratsua

bihurtzen duten ikasteko testuinguruak prestatzean datza. Horregatik, errealitatea ikusteko eta hartan esku hartzeko era desberdinak garatzea da ikasteko modu inportanteena.

- Berdinen arteko lankidetzak oso estrategia didaktiko baliotsua da, konpetentzien osagai kognitibo, emozional eta jarrerazkoak garatzeko. Kolektiboki elkar aberasteko estrategia da, besteari entzutea, elkarriketa, desadostasuna, elkarrekiko begirunea eta osatzaile bakoitzaren onena taldearen onurarako eskaintzeko aukera sartzen baititu.
- Irakasleen funtzioa ikasleen ikaskuntzan tutore izatean datza. Ikasle bakoitzaren ikasteko prozesuak diseinatu, antolatu, estimulatu, lagundu, ebaluatu eta birbideratu behar dituzte, baina ikasleak probatzeko, akatsak egiteko eta ezagutza berrelikatu eta berreraikitzeke libre eta seguru sentituko diren giro adeitsu batean.
- Ikasleen ebaluazioa, funtsean, formazioan zentratzen da. Ikasten ari denari buruzko informazioa eman eta horretan hausnartzera bultzatu behar du ikasle bakoitza; nola ikasten ari den hausnartzera eraman behar du eta laguntza eman behar dio, haren zailtasunak argitzen jakiteke eta etorkizunean ikasten jarraitzeko. Bizitzan autonomia eta eraginkortasun handiagoarekin jokatu ahal izateke behar dituen konpetentziak nola eraikitzen ari den adierazi behar dio ebaluazioak ikasle bakoitzari. Ebaluazioa ikasteko tresna eta aukera da.

Arestian azaldutako guztitik ondoriozta daitekeenez, irakasleek dute ikasteko proposamen didaktikoak diseinatu, aplikatu eta ebaluatzearen ardura eta, horretarako, irakaskuntzaren edukiak, ikasleen ezaugarriak eta oinarriko zeharkako eta diziplina-konpetentziak izango dituzte oinarri.

Aldaketa metodologiko hau arazo-egoerak diseinatuz gauzatu daiteke. Arazo-egoera horiek emango diote ikasle bakoitzari ekimenak garatzeko, informazioa bilatzeko prozesuari ekiteko, irtenbidea bilatzeko estrategiak diseinatzeko, beste kide batzuekin taldean lan egiteko ... eta, azkenik, prozesua eta lanaren emaitzak jakinarazteke zein bitarteko erabiliko duen erabakitzeke aukera. Aurreko guztia nekez egin daiteke, klasean ariketak errepikatzeke mugatzen bagara.

Eskolak ardura hau du:

Ikaskuntza esanguratsu eta nabarmenaren bidez oinarrizko konpetentzien garapena sustatzea

Jarduera haien konplexutasunarengati dauden baliabideak era integratuan mobilizatzea exijitzen duten arazo-egoerak konpontzean datza.
Adierazpen-, prozedurazko eta jarrerazko edukiak arazo-egoerak konpontzeko ezinbesteko baliabideak dira.

Ikasle bakoitza bere ikaskuntzaren subjektu aktiboa da. Ezagutza bilatu, ikasi, esperimentatu, hausnartu, aplikatu eta komunikatzeko prozesuak gauzatu behar ditu, pentsamenduaren eskemak berreraikitze asmoz.

Fokua egiazko egoerak duten jarduerak, ezagutza eguneroko arazo inportanteetara lotuko dutenak, proposatu behar dira.

Eginkizunak egiazkoak izateko, errealitate sozialarekin izan behar dute zerikusia eta horrek eskolaren antolaketa malgua eta sortzailea eska dezake.
Erronka didaktikoa kulturaren bizipena esanguratsu egiten duten ikasteko testuinguruak prestatzean datza. Horregatik, ikasteko era inportanteena errealitatea begiratzeko eta hartan esku hartzeko era desberdinak garatzean datza.

Berdinen arteko lankidetzak oso estrategia didaktiko baliotsua da, konpetentzien osagai kognitibo, emocional eta jarrerazkoak garatzeko.
Elkar aberasteko estrategia da, entzutea, elkarriketa, desadostasuna, elkarrekiko begirunea eta taldearen onurarako osatzaile bakoitzaren onena eskaintzeko aukera sartzen baititu.

Ikasleen ebaluazioa, funtsean, formazioan oinarritzen da. Egiten ari denari buruzko informazioa eman eta hausnartzera eraman behar du ikasle bakoitza. Ikasteko prozesu hori nola egiten ari den esan behar dio eta, etorkizunean nola egin behar duen jakin dezan, laguntza eman behar dio.
Ikasle bakoitzak bizitzan era autonomo eta eraginkorragoan jokatzeko behar diren konpetentziak nola ari den eraikitzen adierazi behar du ebaluazioak. Ebaluazioa ikasteko tresna zehin aukera da

Irakasleen funtzioa ikasleen ikasteko prozesua tutorizatzean datza.

Ikasle bakoitzaren ikasteko prozesuak diseinatu, planifikatu, antolatu, estimulatu, ebaluatu eta berbideratu behar ditu, baina ikasleak probatzeko, akatsak egiteko, berrelikatze eta haien ezagutza berreraikitze libre eta seguru sentituko diren giro eroso batean.

5.- Diziplina- eta zeharkako kompetentzien ebaluazioa.

Oinarrizko kompetentziak, zeharkakoak eta diziplina-kompetentziak, zein mailatan lortu diren ebaluatu behar dela azaltzen du dekretuak. *Gutxi (G)*, *Nahiko (N)* ... terminoetan, zenbaki batekin batera, kalifikatzen diren arlo edo irakasgaien ebaluazioan ez bezala, diziplina- eta zeharkako kompetentziak hiru lorpen mailaren arabera ebaluatuko dira:

- Hasierako maila
- Erdiko maila
- Maila aurreratua

Lorpenaren adierazleak eta maila bakoitzaren mailakatzea 2016-2017ko ikasturtetik aurrera eramango dira aurrera, irakasleek egin beharreko ebaluazioaren lagungarri izan daitezten.

Ondoren, erabilitako ebaluazio-irizpideak eta haien deskripzioa, zenbait lorpen-adierazletan, jasotzen dituzten bi adibide aurkezten dira. Halaber, adierazle horiek hiru lorpen mailatan irakurtzen dira: hasierako maila, erdiko maila eta maila aurreratua. Lehen Hezkuntzako 3.eko eta 6.eko diagnostiko-ebaluazioaren euskarri izateko egin diren kompetentzia zientifikoaren marko teorikoen atala dira adibide horiek.

Lehen Hezkuntzako 3.a

3.DIMENTSIOA: ARAZO ZIENTIFIKOEN IKERKETA

3.1. Izaera zientifikoko arazoak era kualitatiboan eta kuantitatiboan identifikatzea. Horretarako, arrazonamendu zientifikoaren trebetasunak erabiliko dira.

- a) Arazo-egoeraren testuingurua hartzen du kontuan eta behar bezala interpretatzen du.
- b) Arazoaren aldagaiak eta haien arteko harremanak identifikatzen ditu.
- c) Zientifikoki iker daitezkeen galderak formulatzen ditu.
- d) Laborategiko aparatu, ekipo, tresna eta dispositiboak ezagutzen ditu eta noiz eta nola erabili behar diren badaki.

Hasierako maila	Erdiko maila	Maila aurreratua
a.1) Laguntza behar du arazo osatzen duten elementuak identifikatzeko.	a.1) Arazoan esku hartzen duten elementuetako batzuk identifikatzen ditu.	a.1) Arazoan esku hartzen duten elementu guztiak identifikatzen ditu.
a.2) Arazo errazak konpontzeko eman beharreko urrats batzuk adierazten ditu.	a.2) Adierazi eta nolabaiteko logikarekin ordenatzen ditu eman beharreko urratsak, arazo errazak konpontzeko orduan.	a.2) Era antolatu eta argian azaltzen ditu eman beharreko urratsak eta operazioak, arazo errazak konpontzeko orduan.
b) Laguntza behar du arazo batean esku hartzen duten aldagaiak identifikatzeko eta, faktore desberdinek nolako eragina duten ulertzeko intuitiboki begi-bistakoak izan behar dute.	b) Arazo baten aldagaiak identifikatzen ditu, faktore bat baino gehiago aldarazten du esperientzia bakoitzean eta, batzuetan, beste faktore batzuk aldatzen ditu, faktore konkretu baten eragina egiaztatzeko. Gainera, faktore zehatz baten ondorioak ordenatzen ditu baina ez da beste batzuen interferentzia kanpoan uzteko gauza. Faktore baten ondorioa intuizioaren kontrakoa bada, ulertzeko zailtasunak ditu.	b) Aldi bakoitzean faktore bat aldatzeko premia ikusten du eta faktore batzuk kontrolatzeko probak iradokitzen ditu. Gainera, faktore zehatz baten ondorioak ulertzen ditu, intuizioaren kontrakoa izan arren.
c) Ez ditu fenomeno naturalei buruzko galderak planteatzen.	c) Identifikatzen ditu ikertuak izan daitezkeen fenomeno naturalei buruz gidoi batean ematen dizkieten galderak.	c) Fenomeno naturalei buruzko galdera errazak planteatzen ditu, dokumentazio- edo esperimentazio-ikerketa txikietan konpon daitezkeenak.
d) Laborategiko aparatu, ekipo, tresna eta oinarrizko dispositibo batzuk ezagutzen ditu eta, nola jokatu behar duen esan dioten arren, era zehaztu gabe erabiltzen ditu.	d) Gehien erabiltzen diren laborategiko aparatu, ekipo, tresna eta oinarrizko dispositibo batzuk ezagutzen ditu eta argibide zehatzei kasu eginez erabiltzen ditu.	d) Laborategiko aparatu, ekipo, tresna eta oinarrizko dispositibo batzuk ezagutzen ditu eta era autonomoan erabiltzen ditu.

Lehen Hezkuntzako 6.a

3. DIMENTSIOA: ARAZO ZIENTIFIKOEN IKERKETA

3.1. Izaera zientifikoko arazoak era kualitatiboan eta kuantitatiboan identifikatzea. Horretarako, arrazonamendu zientifikoaren trebetasunak erabiliko dira.

- a) Arazo-egoeraren testuingurua hartzen du kontuan eta behar bezala interpretatzen du.
- b) Arazoaren aldagaiak eta haien arteko harremanak identifikatzen ditu.
- c) Zientifikoki iker daitezkeen galderak formulatzen ditu.
- d) Laborategiko aparatu, ekipo, tresna eta dispositiboak ezagutzen ditu eta noiz eta nola erabili behar diren badaki.
- e) Aurkitutako irtenbideak arazo berriak konpontzeko prozesuari aplikatzen dizkio.

Hasierako maila	Erdiko maila	Maila aurreratua
a) Ez du arazo-egoeraren testuingurua kontuan hartzen.	a) Behar den esparru zientifikoan edo sozialean kokatzen du arazoa.	a) Testuingurua hartzen du kontuan arazoa konpontzeko orduan.
b.1) Arazoan esku hartzen duten aldagaietako batzuk identifikatzen ditu baina ez ditu ondorioak behar bezala ulertzen.	b.1) Arazoan esku hartzen duten funtsezko aldagaiak identifikatzen ditu eta haietako batzuen ondorioak behar bezala ulertzen ditu.	b.1) Arazoan esku hartzen duten aldagai guztiak identifikatzen ditu, harremanak ezartzen ditu haien artean eta ondorioak behar bezala ulertzen ditu.
b.2) Arazo batean esku hartzen duten aldagaiak identifikatzen ditu baina, faktore desberdinek nolako eragina duten ulertzeko, intuitiboki begi-bistakoak izan behar dute.	b.2) Arazo baten aldagaiak identifikatzen ditu, faktore bat baino gehiago aldarazten du esperientzia bakoitzean eta, batzuetan, beste faktore batzuk aldatzen ditu, faktore zehatz baten ondorioa egiaztatzeko. Gainera, faktore zehatz baten ondorioak ordenatzen ditu baina ez da beste batzuen interferentzia kanpoan uzteko gai. Faktore baten ondorioa intuizioaren kontrakoa bada, zailtasunak ditu ulertzeko orduan.	b.2) Aldi bakoitzean faktore bat aldatzeko premia ikusten du eta faktore batzuk kontrolatzeko probak iradokitzen ditu. Gainera, faktore zehatz baten ondorioak ulertzen ditu, intuizioaren kontrakoa den arren.
b.3) Era ordenatuan eta argian azaltzen ditu eman beharreko urrats eta operazioak, planteatutako arazoak konpontzeko orduan.	b.3) Era ordenatuan eta argian azaltzen ditu eman beharreko urratsak, eguneroko esperientziei lotutako arazo zientifikoak konpontzeko orduan.	b.3) Era ordenatuan eta argian azaltzen ditu eman beharreko urrats eta operazioak, izaera zientifikoko arazoak konpontzeko orduan.
c) Fenomeno naturalei buruzko galdera errazak planteatzen ditu baina konpontzeko laguntza behar du,	c) Fenomeno naturalei buruzko galdera errazak planteatzen ditu, dokumentazio- edo esperientziazko-ikerketatik txikien	c) Fenomeno naturalei buruzko oinarriko galderak formulatzen ditu, dokumentazio- edo esperientziazko-ikerketatik txikien

<p>dokumentazio- edo esperimentazio-ikerketan txikien bidez.</p>	<p>bidez konpon daitezkeenak.</p>	<p>bidez konpon daitezkeenak.</p>
<p>d) Laborategiko aparatu, ekipo, tresna eta oinarrizko dispositiboak ezagutzen ditu baina zehaztasunik gabe erabiltzen ditu, argibideak eman zaizkion arren.</p>	<p>d) Laborategiko aparatu, ekipo, tresna eta oinarrizko dispositiboak ezagutzen ditu eta argibide zehatzen arabera erabiltzen ditu.</p>	<p>d) Laborategiko aparatu, ekipo, tresna eta oinarrizko dispositiboak ezagutzen ditu eta era autonomoan erabiltzen ditu.</p>
<p>e) Arazo mota batzuk lehen landu diren antzeko beste batzuekin erlazionatzen ditu eta, argibideak ematen bazaizkio, ebazteko haietan aplikatutako urratsak jarraitzen ditu.</p>	<p>e) Arazoak beste antzeko batzuekin erlazionatzen ditu eta ebazteko haietan aplikatutako urratsak jarraitzen ditu.</p>	<p>e) Arazoak antzeko beste batzuekin erlazionatzen ditu eta ebaztean emandako urratsak beste arazo batzuetara transferitzen ditu.</p>

6.- 2016-2017ko ikasturtean arlo edo irakasgaiaren urteko programazio didaktikoa.

2016-2017ko ikasturtean arlo edo irakasgai bakoitzaren urteko programazio didaktikoa egiteko, I. eranskinean txantiloia bat eskaintzen da, 2013ko “programazio didaktikoak egiteko orientabideak” agirian jasotakoa gaurkotzen duena.

Agiri honetan ikusi denez, gehitzen dituen alderdiak hauek dira:

- Egoki izanez gero, integratutako arlo edo irakasgaiak adieraziko dira programazioetan.
- Halaber, zuzenean lotuta dagoen diziplina-kompetentzia azalduko da, baita hau garatzeko lagungarri den beste diziplina-kompetentzia batzuk ere.
- Era berean, bost zeharkako kompetentziak behar den atalean jasota agertuko dira.
- Helburuek eta ebaluazio-irizpideek zeharkako eta diziplina-kompetentziak integratuko dituzte (bai arlo edo irakasgaiari zuzenean loturik dagoen kompetentzia, bai arlo edo irakasgai hori lagungarri den kompetentziak ere).
- Hizkuntzakoak ez diren arlo /irakasgai guztietan hizkuntz komunikazioaren helbururen bat espezifikatuko dela gogorarazi behar dugu.
- “Edukien sekuentzia “ atalean arazo-egoera bat azaltzen duen unitate didaktiko bat, gutxienez, adieraziko da.

Gainera, arazo-egoera hau garatzen duen unitate didaktikoaren programazioa eskatuko da ikasturte honetan. Horretarako, II. eranskinean eskaintzen den txantiloia erabil daiteke eta III. eranskinean eta Berritzegune Nagusiak³ egindako orrian agertzen diren adibideak hartu ahal izango dira kontuan.

eranskinak

I. ERANSKINA
ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA
EGITEKO TXANTILLOIA
ANEXO I
PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA
ANUAL DE ÁREA O MATERIA

Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa
Programación didáctica anual/de curso

ikastetxea: <i>centro:</i>		kodea: <i>código:</i>	
etapa: <i>etapa:</i>		zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	
arloan/irakasgaia: <i>área / materia:</i>			
osatutako arloak/irakasgaiak <i>materias integradas/ áreas</i>			
diziplina barruko oinarrizko konpetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares</i> <i>básicas asociadas</i>			
irakasleak: <i>profesorado:</i>		ikasturtea: <i>curso:</i>	

Zeharkako konpetentziak / *Competencias transversales:*

- 1.
- 2.
- 3.
- 4.
- 5.

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

- ...
- ...
- Unitate didaktikoa (arazo-egoera bat garatu eta labur azaltzen duena):
- ...
- ...

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada instrumento de evaluación].</p>
<p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupezio-sistema...].</p> <p>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].</p>	

OHARRAK / OBSERVACIONES

II. ERANSKINA
ARAZO EGOERA BATETIK ABIATUTA UNITATE DIDAKTIKO BAT
PROGRAMATZEKO TXANTILLOIA

Arloa:
Gaia:
Maila:
Saioak:
Proposamenaren justifikazioa:
Arazo-egoera: A. Testuingurua: B. Arazoa: C. Helburua:
Eginkizuna:
Oinarrizko konpetentziak: A. Zeharkakoak: B. Diziplina-konpetentziak:
Helburu didaktikoak:
Edukiak:
Jardueren sekuentzia: A. Hasierako fasea: B. Garapenaren fasea: C. Aplikazio eta komunikazioaren fasea: D. Orokortzea eta transferentzia:
Ebaluazioa A. Adierazleak: B. Tresnak:

III. ERANSKINA

ARAZO EGOERA BATETIK ABIATUTA UNITATE DIDAKTIKO BATEN PROGRAMAZIOAREN ADIBIDEAK

Komiki bat egingo dugu

Arloak: Gaztelania eta Literatura eta Arte Hezkuntza	
Gaia: testu narratiboak, komikia zehatzago esanda.	
Maila: Lehen Hezkuntzako 5.a	
Saioak: 12	
Proposamenaren justifikazioa: istorioak kontatzea hizkuntz komunikazioa oinarritzen den jardueretako bat da. Pertsonak mugitzen diren gizarte- eta kultura-testuinguru gehienek atala dira kontraerak. Gainera, testu eta irudiak konbinatzen dituzten kontraera mistoek (komikiak, serieak, filmak ...) gero eta presentzia handiagoa dute ikasleen bizitzan. Horregatik, kode desberdinak nahasten dituzten genero testual horiek ulertzeko trebetasun espezifikokoak garatu behar dira.	
<p>Arazo-egoera:</p> <p>a) Testuingurua: auzoko liburutegian uholdeak izan dira eta haurrek irakurtzeko gune guztia hondatu da. Kalteak konpontzen saiatzen ari dira baina lan luzea da eta diru asko balioko du. Egoera honek jarraitu bitartean, auzoko haurrak ezin izango dira irakurtzeko liburutegian egon, ez baitago haien adinerako material egokirik. Egoera hau konpontzen saiatzeko, liburutegiko arduradunek ikastetxei eskatu diete laguntza.</p> <p>b) Arazoa: zer egin dezakegu laguntza emateko gure klasean? Auzoko liburutegirako testuren bat egiteko gauza al gara?</p> <p>c) Helburua: jarrera kritikoarekin ulertu eta baloratzea eta, gizarte-helburu bat lortzeko, literaturaren esparrutik hurbil dauden ikus-entzunezko testuak, analogikoak eta digitalak, sortzea.</p>	
<p>Eginkizuna:</p> <p>Gai desberdinekin komikiak, paperean edo tresna digital bat erabiliz, egitea, udal liburutegiari entregatzeko.</p>	
<p>Oinarrizko kompetentziak:</p> <p>A. Zeharkakoak:</p> <p> Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia</p> <p> Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia</p> <p> Elkarbizitzarako kompetentzia</p> <p> Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia</p> <p> Izaten ikasteko kompetentzia</p> <p>B. Diziplina-kompetentziak:</p> <p> Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia</p> <p> Arterako kompetentzia</p>	<p>Jarduerak: 7, 8, 10, 11, 13 eta 15</p> <p>Jarduerak: 1, 2, 7, 9, 10, 11, 12, 14, 16 eta 17</p> <p>Jarduerak: 9, 14 y 15</p> <p>Jarduerak: 1, 2, 9, 10, 11, 12 eta 15</p> <p>Jarduerak 2 eta 17</p> <p>Jarduera guztiak</p> <p>Jarduerak: 11, 13 eta 16</p>

Helburu didaktikoak:

- ✓ Testu narratiboen aniztasuna aitortzea
- ✓ Komiki baten oinarrizko ezaugarriak ezagutzea
- ✓ Testu narratiboen edukia sintetizatzea
- ✓ Informazio eta Komunikazio Teknologiak era eraginkorrean, informazioa selekzionatzeko, erabiltzea.
- ✓ Komiki bat generoaren konbentzioen arabera egitea
- ✓ Jarduerak egiteko prozesuan eraginkortasunez laguntzea
- ✓ Erabakiak hartzeko eta ikasteko prozesuaz hausnarketa egiteko kompetentzia garatzea
- Norberaren eta beste batzuen testuak eraginkortasunez berrikustea

Edukiak:

- ✓ Testu narratibo anitz irakurtzea
- ✓ Laburpen egokiak egitea
- ✓ Idatzizko testu narratiboen konparazioa eta analisisa
- ✓ Idatzizko testu narratiboak ikuste-testu bihurtzea
- ✓ Komiki baten elementu narratiboen planifikazioa
- ✓ Komiki baten elementu grafikoaren planifikazioa
- ✓ Komiki bat egiteko prozesua
- ✓ Informazio eta Komunikazio Teknologiak komikia egiteko eraginkortasunez erabiltzea
- ✓ Ikaskuntzari berari buruz hausnarketa egiteko estrategiak erabiltzea
- ✓ Komikiaren funtsezko ezaugarriak
- ✓ Talde-lanean era aktiboan parte hartzea
- ✓ Jarrera positiboa izatea egindako lana berrikustean

Jardueren sekuentzia:

- A. Hasierako fasea: jarduerak 1, 2 eta 3
- B. Garapeneraren fasea: jarduerak 4, 5, 6, 7, 8 eta 9
- C. Aplikazio eta komunikazioaren faseak: jarduerak 10, 11, 12, 13, 14 eta 15
- D. Orokortzea eta transferentzia: jarduerak 16 eta 17

Ebaluazioa

A. Adierazleak:

- ✓ Testu narratibo anitz ezagutzen ditu.
- ✓ Haren sormenean komiki baten oinarrizko ezaugarriak ezagutu eta erabiltzen ditu.
- ✓ Narrazio baten funtsezko elementuak sintetizatzen ditu.
- ✓ Istorio oso bat, komiki baten bidez, narratzen du.
- ✓ Komikian ikuste-bokadiloak eta metaforak behar bezala erabiltzen ditu.
- ✓ Narratutako istoriora egokitutako irudiak aukeratu eta egiten ditu.
- ✓ Norberaren eta beste batzuen testuak era gidatuan eta lankidetzan berrikusten ditu.
- ✓ Talde-lanean era aktiboan hartzen du parte.

B. Tresnak:

- Lana ebaluatzeko izenpea: jarduera 2
- Koebaluazioaren txantiloia: jarduerak 9 eta 14
- Prozesua ebaluatzeko txantiloia: jarduera 17
- Integrazio-egoera: jarduera 16

ARGIA

Arloa: FISIKA ETA KIMIKA									
Gaia: ARGIA									
Maila: DBHko 2.a									
Saioak: 12									
<p>Proposamenaren justifikazioa:</p> <p>Argiak eta argiari lotutako gaiek garrantzi handia dute gaurko gizartean, eguneroko bizitzan dituzten aplikazio ugariengatik: komunikazioetan, osasunean, industrian, irudigintzan, ... eta horrek, gainera, ematen digu eguneroko hainbat eta hainbat gertakari azaltzeko aukera.</p> <p>Izan ere, argia eta fenomeno optiko errazak ikasleen inguruneke eguneroko elementuak dira.</p> <p>Abiapuntua betiere harritzen gaituen fenomeno natural bat, nahiko egunerokoa dena, da: ortzadarra. Fenomeno horretatik abiatuta, argiari buruzko zenbait gai planteatzen dira. Gai horiek, ikasleen interesa pizteko ez ezik, argiari buruz alde aurretik izan ditzaketen ideia batzuk eta etapa horretako ikasleek gehien egiten dituzten akatsak, argiaren propagazioari eta izaerari lotuak, kontuan hartzeko ere izan daitezke baliagarri.</p>									
<p>Arazo-egoera:</p> <p>a) Testuingurua: fenomeno fisiko guztien artean, argiari lotutakoak, seguru asko, liluragarrienak eta jakin-min handiena pizten dutenak dira. Ortzadarra agertzeak fantasia eta superstizio asko sortzen ditu. Ortzadarrak, mendeetan zehar, esanahi berezia izan du, haren misterioari eta edertasunari lotutakoa. Gainera, fenomeno atmosferikoen munduko gertakaria da, pertsonentzat sekulan ere azaldu ezin direnak eta, beraz, naturaz gaindikoa da, sinesmen herrikoiaren unibertsoaren barrukoa. XXI. mendean bete-betean gaudela, superstizioetan sinesteak oso sustraituta egoten jarraitzen du. Superstizio horiek gezurra direla erakusteko eta fenomeno natural horri azalpen erraza emateko lagungarri zaigu zientzia.</p> <p>b) Arazoa: Zer da ortzadarra? Nola sortzen da ortzadarra?</p> <p>c) Helburua: norberak bere iritzia osatzea, zehaztasunez adieraztea eta, ezagutza zientifikoan oinarrituta, superstizioen kontra argudiatzea.</p>									
<p>Eginkizuna:</p> <p>Agirien bidezko ikerketa bat egitea eta ortzadarra osatzearen gaineko aurkezpen digital bat egitea.</p>									
<p>Oinarrizko kompetentziak:</p> <p>A. Zeharkakoak:</p> <table style="width: 100%; border: none;"> <tr> <td style="width: 50%;">Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.</td> <td style="width: 50%;">Jarduerak: A.5, A.6, A.7, A.9, A.10, A.14, A.17, A.20, A.21, A.22, A.24, A.25, A.26, A.27, A.30, A.31, A.32, A.33, A.34, A.38</td> </tr> <tr> <td>Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia</td> <td>Jarduerak: A.1, A.2, A.6, A.7, A.9, A.10, A.13, A.17, A.19, A.23, A.25, A.27, A.28, A.30, A.32, A.33, A.34, A.38</td> </tr> <tr> <td>Elkarbizitzarako kompetentzia</td> <td>Jarduerak: A.7, A.8, A.10, A.14, A.34</td> </tr> <tr> <td>Ekimenerako eta ekiteko espiriturako</td> <td>Jarduerak: A.8, A.20, A.24, A.34, A.38</td> </tr> </table>		Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.	Jarduerak: A.5, A.6, A.7, A.9, A.10, A.14, A.17, A.20, A.21, A.22, A.24, A.25, A.26, A.27, A.30, A.31, A.32, A.33, A.34, A.38	Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia	Jarduerak: A.1, A.2, A.6, A.7, A.9, A.10, A.13, A.17, A.19, A.23, A.25, A.27, A.28, A.30, A.32, A.33, A.34, A.38	Elkarbizitzarako kompetentzia	Jarduerak: A.7, A.8, A.10, A.14, A.34	Ekimenerako eta ekiteko espiriturako	Jarduerak: A.8, A.20, A.24, A.34, A.38
Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.	Jarduerak: A.5, A.6, A.7, A.9, A.10, A.14, A.17, A.20, A.21, A.22, A.24, A.25, A.26, A.27, A.30, A.31, A.32, A.33, A.34, A.38								
Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia	Jarduerak: A.1, A.2, A.6, A.7, A.9, A.10, A.13, A.17, A.19, A.23, A.25, A.27, A.28, A.30, A.32, A.33, A.34, A.38								
Elkarbizitzarako kompetentzia	Jarduerak: A.7, A.8, A.10, A.14, A.34								
Ekimenerako eta ekiteko espiriturako	Jarduerak: A.8, A.20, A.24, A.34, A.38								

konpetentzia	
Izaten ikasteko konpetentzia	Jarduerak: A.2, A.6, A.13, A.23, A.25, A.32, A.35; A.36, A.37, A.39
B. Diziplina-konpetentziak:	
Zientziarako konpetentzia	Jarduerak: A.3, A.4, A.5, A.7, A.8, A.9, A.10, A.11, A.12, A.14, A.15, A.16, A.17, A.18, A.19, A.20, A.21, A.22, A.24, A.26, A.27, A.28, A.29, A.30, A.31, A.33, A.34, A.37, A.38
Matematikarako konpetentzia	Jarduerak: A.11, A.12, A.29
Kultura humanistikoan eta artistikoan konpetentzia.	Jarduerak: A.1, A.14, A.15, A.16, A.17, A.18, A.19
Helburu didaktikoak:	
<ol style="list-style-type: none"> 1. Lehen eta bigarren mailako argi-iturriak bereiztea. 2. Argia espazioan zuzen hedatzen den izate gisa azaltzea. 3. Hutsean hedatzeko abiadura aplikatzea ariketa batzuk ebazteko orduan. 4. Itzalak, argiantzak eta eklipseak argia zuzen hedatzearen ondorio gisa azaltzea. 5. Argitsuak ez diren objektuak ikustea haietan gertatu eta gure begietara iristen den argiaren islapenaren ondorio dela ulertzea. 6. Argiaren norabide-aldaketak, bi medioak bereizteko azalera iristen denean, aurreikustea. 7. Islapenaren legearen abiatuz, ispiluetan irudiak osatzeko prozesua azaltzea. 8. Argiaren dispertsioaren gertakaria abiapuntutzat hartuta, zenbait fenomeno natural azaltzea. 9. Lanen banaketa talde-lanari dagokion zerbaiten gisa onartzea. 10. Zenbait teknika eta hizkera zientifikoa erabiliz emaitzak jakinaraztea. 11. Pentsamendu kritikoa eskuratzea eta argiaren ondorioei lotutako superstizioen eta sinesmen faltsuen kontra argudiatzea. 12. Superstizioei aurre egiteko ezagutza zientifikoaren garrantziaz jabetzea. 	
Edukiak:	
<ul style="list-style-type: none"> - Argia hutsean hedatzen den izate gisa tratatzea. Objektuak argiaren bigarren iturria diren aldetik. - Argia zuzen hedatzea. Berorren ezaugarri dinamikoak. Egoerak identifikatzeko argibideak eta agerian jartzeko esperientzia errazak egiteko teknikak. Hutsean hedatzeko abiadura. - Itzalak eta eklipseak osatzea. - Islapenaren bidez ispiluetan irudiak osatzea. - Errefrakzioan irudiak sortzea - Argiaren dispertsioa - Fenomeno naturalak ezagutzeko grina eta interesa - Egoera arazotsuak direla-eta, egiaztatze moduko hipotesiak egiteko irizpideak. - Argiaren ezaugarriei lotutako laborategi-esperientziak egiteko arau eta teknikoak. - Aldaketa optikoei lotutako deskripzio eta azalpenak egiteko arauak. - Testuetan, ikus-entzunezko materialetan eta multimedien ideiak identifikatu eta ezagutzeko teknikak. - Datuak, ideiak eta harremanak bilatzeko informazio-iturri desberdinak erabiltzeko 	

irizpideak.

- Lan pertsonalean ahalegintzea, eginkizunetan jarrera aktiboa eta arduratsua erakutsiz.
- Hizkera zientifikoa zehatz erabiltzea eta argitasun- eta ordena-ohiturak adiera desberdinetan preziatzea.
- Talde-lana egiteko eta landutako gaiet buruzko eztabaidetan parte hartzeko arauak.
- Talde-lanaren aldeko jarrera izatea, eginkizunetan lankidetzan aritzearen eta parte hartzearen aldeko jarrerak erakutsiz eta desberdintasunak pertsonetikiko begirunearekin onartuz.
- Jarduera zientifikoa ari diren pertsonet buruzko ikuspegi estereotipatua gainditzea.
- Itzalak eta argiantzak osatzea ulertzeko izpi-diagramak erabiltzea.
- Argia hedatzeko abiadurari buruzko ariketak ebaztea.
- Argia dispertsioari buruzko agirien bidezko ikerketa txiki bat egitea.

Jardueren sekuentzia:

A. Hasierako fasea:	A.1, A.2
B. Garapen-fasea:	A.3, A.4, A.5, A.6, A.7, A.8, A.9, A.10, A.11, A.12, A.13, A.14, A.15, A.16, A.17, A.18, A.19, A.20, A.21, A.22, A.23, A.24, A.25, A.26, A.27, A.28, A.29, A.30, A.31, A.32, A.35, A.36, A.37
C. Aplikazio eta komunikazioaren fasea:	A.33, A.34
D. Orokortzearen eta transferentziaren fasea:	A.38

Bilakaera

- A. Adierazleak:
- Islapena eta errefrakzioa bezalako argiaren ezaugarriet buruzko ezagutzak erabiliz azaltzen ditu fenomeno naturalak.
 - Argia hedatzeko abiadurari buruzko ariketak ebazten ditu.
 - Itzalak, argiantzak eta eklipseak izatea azaltzen du.
 - Argiari lotutako ohar eta esperientzia errazak egiten ditu taldeka.
 - Argiaren deskonposizioa azaltzen du eta argiaren dispertsioaren fenomenoari lotutako gaiak ebazten ditu.
 - Parte hartzen du lana planifikatzeko orduan, agindutako lana bere gain hartzen du eta taldeka hartutako erabakiak partekatzen ditu.
 - Argitasunaren, ordenaren eta zehaztasunaren ohiturak erakusten ditu ahozko azalpenetan eta idatzizko txostenetan.
- B. Tresnak:
- Aldez aurreko ideiak antzemateko jarduera: A.1
 - Autoebaluazio-galdekizunak: A.36, A.37, A.39
 - Koebaluazio-galdekizuna: A.35, A.39
 - Ikaskuntza-kontratua (Errefortzua)
 - Irakasleek zehazten duten beste edozein.